



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO UZTAILAREN 25EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko uztailaren 25ean arratsaldeko 17:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M^a Mar Ansorena, Olatz Dorai, Julen Beunza, Santos Etxegia, Ricardo Arangoa eta Xabier Azpiroz.

17:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2019ko ekainaren 15 eta 25eko ez ohiko batzarreko aktak, deialdiarekin batera bidali dira eta bildutakoek aho batez onartzen dituzte.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2019/71 alkate ebazpena maiatzaren 31eko M^a Pilar Ochotorena Arangoari obra baimena emanaz Berueteko 12 poligonoko 26 lursaileko sarrera urbanizatzeke.

- 2019/72 alkate ebazpena maiatzaren 31ekoa Amaia Legarra Beunza Basaburuko haur eskolako zuzendari izendatuz.

- 2019/73 alkate ebazpena maiatzaren 31ekoa Amaia Oloriz Satrustegui Basaburuko haur eskolako hezitzaile izendatuz.

- 2019/74 alkate ebazpena ekainaren 5ekoa baimena emanaz Aralar Musika Eskolari ekainaren 13an Apeztegiberriko ganbara erabiltzeko arratsaldeko 15.30tatik aurrera ikasturte bukaerako kontzertua egiteko.

- 2019/75 alkate ebazpena ekainaren 5ekoa onartuz Basaburuko gunen turistiko eta interesdun elementuen mantenimendurako proiektua eta kontrataziorako beharrezkoa den laguntza eskatzea.

- 2019/76 alkate ebazpena ekainaren 7koa Jesus M^a Madozi 0149CWD matrikuladun autoaren 2019 urteari dagokion zirkulazio zergaren itzulketa onartu behin betiko baja emanagatik.

- 2019/77 alkate ebazpena ekainaren 20koa onartuz, udal honek 2007ko abenduaren 28an Ainzua Biurrun S.C.I empresari Igoako 9. Poligonoko 300. Lursailean, zakurtegia eta artzain zakur eskola edukitzeko emandako jarduera sailkatutako baimenaren titularitatea aldatzea, Virginia Fernandez Biurrunen izenera pasatzeko.
- 2019/78 alkate ebazpena ekainaren 20koa Yolanda Arribasi iharduera sailkatu ez kaltegarria emanaz, Arrarasko 14 poligonoko 326 lursailean 5 ardi, 5 ahuntza eta 6 oilo edukitzeko.
- 2019/79 alkate ebazpena ekainaren 25ekoa Martxoaren 20ko 2019/31 Foru Dekretuaren 3. artikuluari jarraiki, ustiapen extensiboa dela Gartzarongo 6. poligonoko 110. lursailean 10 zaldi izatea eta iharduera ez kaltegarriarako baimen ematea Raimundo Perez Jimenezi.
- 2019/80 alkate ebazpena ekainaren 26koa Baimena ematea Pili MIkeo Mikeori, Uztailaren 4, eta 5ean, arratsaldeko 18:30etatik 21:00etara Aizarozko kultur etxeko gela handia eta eszenategia erabiltzeko karabana kontakteroa ekimena burutzeko.
- 2019/81 alkate ebazpena uztailaren 2koa Sara Quesadari obra baimena emanaz Aizarozko 10. poligonoko 81. lursailean aterpea egikaritzeko 16,268,51 euroko aurrekontuarekin
- 2019/82 alkate ebazpena uztailaren 2koa M^a Lidia Manjarrez Paradak aurkeztutako aitorten arduratsua onartu Itsasoko 4. Polígono 6 . lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua berritzeko aurrekontua 41.073 eurokoa izanik.
- 2019/83 alkate ebazpena uztailaren 10ekoa onartuz Telefonika empresari udal baimena Basaburuan, fibra optikoa zabaltzeko plana egikaritzeko.
- 2019/84 alkate ebazpena uztailaren 10ekoa baimena emanaz Iosu Collado Berruezori Kultur Etxeko gela erabiltzeko yoga ikastaroak emateko, uztailaren 19tik, iraila arte ostiraletan adinduendako yoga klaseak emateko 10:00etatik 11:30etara eta bestetik yoga ikastaro bat egiteko abuztuan ostegunetan 19:30etatik 21:30etara eta ostiraletan 7:00etatik 9:00etara.
- 2019/85 alkate ebazpena uztailaren 12koa onartuz Express Ascensores enpresak aurkeztutako aurrekontua Jaunsaratsko Apeztegiberria eraikinean igogailua jartzeko, 32.212,08 euro BEZ kanpoko aurrekontuarekin.

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.- Caixako kontuan Basaburuko udaleko ahalmenuak.

Alkateak azaltzen du legealdi aldaketarekin bankuetako ahalmenuak aldatu behar direla, Caixa kontuan aurreko legealdian kirol eta ogasun batzordeetako lehendakaria zegoen ahalmendun bezala, hortaz bildutakoak aho batez ondoren transkribatzen den akordioa hartzen dute:

-Esther Lakasta Perez Iizarbe 29144188Z NAN zenbakiduna, Basaburuko Udaleko alkatea, Francisco Javier Azpiroz Latasa 33417841Z NAN zenbakiduna Ogasun Batzordeko lehendakaria, Julen Beunza Arano 73420593Q NAN zenbakiduna Kirol Batzordeko lehendakaria eta Lucia Beloqui Iriarte 44634162 V NAN zenbakiduna Basaburuko Udaleko idazkaria izendatzea Basaburuko Udaleko ahalmenuak Basaburuko Udalak Caixa entitatean duen kontu korrontea kudeatzeko.

-Akordio hau Caixa bankura helaraztea.

Gai ordenetik kanpo presazko beste gai bat dago aztertzeko ogasun batzordean aztertu izan zena uztailaren 24an, 2019ko aurrekontuaren hasierako onespenera. Bildutakoek aho batez onartzen dute gai zerrendan sartzea aipatutako gaia.

.2019ko aurrekontua. Hasierako onspena.

Alkateak azaltzen du aurrekontua landu dela jada batzordeetan, onartutako behin behineko gastua 1.179.636,39 eurokoa eta sarrerena 1.180.103,13 eurokoa. Hau ikusita bildutakoek aho batez ondoren zehazten den akordioa onartzen dute:

- **Hasierako onspena ematea 2019ko aurrekontuari gastuen behin behineko aurreikuspena 1.179.636,39 euro izanik eta 1990/6 Toki Administrazio Foru Legearen 271. Artikuluaren arabera hasierako onspena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, espedientea 15 egunez jende aurrean egon dadin.**

4.-Mozioak.

Tafallako gertakaeren inguruan ondoren traskribatzen den mozioa irakurtzen du alkateak;

NAFARROAKO ERDIALDEKO UHOLDE LARRIEN AURREAN AKORDIOA

Pasa den uztailaren 8an izandako eurite handiek eta Zidakos ibaiak gainezka egin izanak, bereziki, Nafarroako erdialdeko Tafalla, Erriberri, Puiu, Beire, Pitillas, Leotz eta beste hainbat herri kaltetu zituen, etxebizitzetan, garajeetan eta komertzioetan kalte garrantzitsuak eragiteaz gain, oinarrizko azpiegiturak ere kaltetuak izan zirelarik, baita herrietako komunikazio bideak, kaleak eta landa-bideak ere.

Zoritxarrez, uholde hauek, 25 urteko Zeru Cañada Zorrilla gaztearen heriotza eragin zuten, bizi zen Gardalain herrira kotxez zihoala.

Hondamendi natural honek eskumena duten administrazio publikoen parte-hartzea eskatzen du, baita hain larriki kaltetua izan den eskualde honetik elkartasun ekonomikoa adierazi nahi duten administrazio guztien diru-laguntza ere. Tafallako eta beste herri batzuetako udalek antolatutako auzolanetan herritar ugari erakutsitako elkartasun pertsonalaz gain, beste toki-entitate batzuek auzolan ekonomiko bat sustatzea posiblea izanen litzateke, besteak beste, euriteek eragindako kalteak moldatzeko behar diren inbertsioei aurre egin ahal izateko.

Guzti honen aurrean, honako akordioa adosteko proposamena oarntzen du Basaburuko udalak:

Lehena.- Udal honek uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean gertatutako euriteen eta uholdeen ondorioz kaltetutako herritarrei eta udalerriei elkartasuna adierazi nahi die, eta, bereziki, Zeru Cañada Zorrillaren senitartekoei.

Hirugarrena.- Udal honek kaltetuak izan diren herriei beraien elkartasuna adierazteko auzolan ekonomikoan parte hartzea animatu nahi ditu herritarrak, horretarako kaltetutako udalek ireki dituzten banku-kontuetan egokia ikusten duten ekarpena eginez.”

Aho batez onartzen dute bildutakoek mozioa.

5.- Batzordeen informazioa.

- Kontzejuan Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Kontzejuekin lehenengo bilera egin zen udal berriaren aurkezpena egiteko, ez ziren alkate guztiak etorri hortaz batzordeko lehendakaria bilduko da falta zirenekin.

- Gizarte Politika Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Batzordea osatu dela adierazten du eta adinduen gelaren kudeaketaren arduradunekin bilera egin da, prestatu duten proiektua aurkezteko, Nafar Gobernuako dirulaguntzetara aurkezteko.

6.- Informazio orokorra.

1.- Nafarroako Gobernua.- Toki antolamenturako zerbitzua

2019ko ekainaren 5eko 879/2019 ebazpena Toki administrazioko zuzendari nagusiak emana, non Apeztegi berrin igogailua jartzeko inbertsioari dagokion aurrekontua behin betikoz onartzen den. Onartuko gastua 32.923,28 eurokoa da eta horren %70ko dirulaguntza 23.046,30 eurokoa.

2.- Nafarroako Gobernua.- Toki antolamenturako zerbitzua

2019ko ekainaren 17ko 948/2019 ebazpena Toki administrazioko zuzendari nagusiak emana, non lhabengo ur sareak berritzeko dirulaguntzaren %60 ematen den (51430,54 euro).

3.- Nafarroako Gobernua.- Toki antolamenturako zerbitzua

2019ko ekainaren 17ko 952/2019 ebazpena Toki administrazioko zuzendari nagusiak emana, non lhabengo ur hornidura Arrietako iturritik hartzeko obraren dirulaguntzaren %60 ematen den (28925,81 euro).

4.- Nafarroako Gobernua.- Osasun Departamentua

Ekainaren 4ko 566//2019 ebazpena non Basaburuko Udalarari 1707 euroko dirulaguntza onartzen zaion Basaburuan adineko pertsonen zahartzaro osasuntsua sustatzeko programarako.

5.- Nafarroako Gobernua.- Toki antolamendurako zerbitzua

Ekainaren 18ko 958/2019 ebazpena non hautesiei 2019ko ekitaldian emandako ordainsariengatik jaso beharreko zenbatekoa eta ordainketa onartzen den (Basaburuak 7 zinegotzi, 13337,36 euro)

6.- Nafarroako Gobernua.- Hezkuntza departamentua

Ekainaren 7ko 348/2019 ebazpena non eskolaren mantenimenturako dirulaguntza onesten den (Basaburuak 69 ikasle, 21.690,15 euro)

7.- Nafarroako Gobernua.- Osasun Departamentua

Maiatzaren 30eko 544/2019 ebazpena non osasuna sustatzeko programak egiteko dirulaguntza ebazten den. Basaburuko udalari osotara 3.225 euro, 1528 emakumeen osasuna sustatzeko eta gazteen osasuna sustatzeko 1697 euro.

8.- Euskarabidea

2019ko ekainaren 25eko 31E/2019 ebazpena non udal esparruan euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2019ko laguntzak izeneko deialdia ebazten den. Basaburuko udalari 3.842,96 euro eman zaizkio.

9.- Goi tentsioko línea. Itxaso- Orcoyen.

Udalak alegazioak jarri zizkion proiektuari eta horren erantzun bezala, kontutan hartuko dituztekoa adierazten du Ingurugiroko Estatuko Idazkaritzak.

10.- Euala eta NUF-eko hitzarmena.

NUF-ek Euala enpresarekin lankidetz hitzarmena sinatu du, berdintasun arloan kontsultaritza lanak udalerriekin egin ahal izateko.

7.-Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 18:10ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.